

1379/2025 EBAZPENA, IRAILAREN 2KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZARI ATXIKITA DAGOEN KIRURGIA KARDIOBASKULARREKO ZERBITZUBURUAREN LANPOSTUA HAUTATZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA (EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-AN DU EGOITZA).

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 2ko 662/2025 Ebazpenaren bidez, lehiaketa-deialdia argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari atxikitako kirurgia kardiobaskularreko zerbitzuburuaren lanpostua hornitzeko (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIan du egoitza). Deialdi hori 2025eko maiatzaren 20ko EHAA (93. zk.) eta 2025eko maiatzaren 30eko BOEn (130. zk.) argitaratu zen.

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun baliouduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azkeneko argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2025eko ekainaren 20an amaitu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 1172/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, lan-arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua arabera (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Kirurgia kardiobaskularreko zerbitzuburuaren lanpostua hornitzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 2a.




Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE

I. ERANSKINA**KIRURGIA KARDIOBASKULARREKO ZERBITZUBURUAREN LANPOSTUA.**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

ALEJANDRO CRESPO DE HUBSCH.
ROBERTO VOCES SÁNCHEZ.

Baztertuen behin betiko zerrenda:

INOR EZ

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 2a.

II. ERANSKINA

KIRURGIA KARDIOBASKULARREKO ZERBITZUBURUAREN LANPOSTUA. BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Asistentzia Sanitarioko zuzendaria (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia): Koldo Berganzo Corrales.

Ordezkoa: Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia): Jorge Romeo Ollora.

Lehenengo batzordekidea:

Bilbo-Basurtuko ESiko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Bihotzeko Kirurgiako Kudeaketa Klinikoko unitateburua (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia): Álvaro Ortiz de Salazar Varona.

Bigarren batzordekidea:

Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Bihotzeko Kirurgiako zerbitzuburua (Nafarroako osasun-zerbitzua): Rafael Sadaba Sagredo

Hirugarren batzordekidea:

Valdecillas Ospitaleko Zerbitzu Kardiobaskularreko zerbitzuburua (Kantabriako osasun-zerbitzua) (IVAPek proposatua): José Francisco Gutiérrez Diez.

Idazkaria:

Giza Baliabideen zuzendaria (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia): Josune Retegi Ormazabal.

Ordezkoa: Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia): Xabier Arauzo Uriarte.